

JON ZIGANDA ETA JON ESTONDO -FELIX UGARTE ESPELEOLOGIA ELKARTEKO KIDEAK

## “Kirola eta zientzia nahasten dira espeleologian: kobatan ibiltzeaz gain fotografía, topografía eta abar ikasten da”

■ Espeleología hobbie-a da bi lagunentzat, eta beren kasa edo proiektu jakinen baten aitzakian ibiltzen dira: Arditurriko minatako plano topográfikoak ateratzen, adibidez.


■ Irunen biltzen dira orain Felix Ugarte taldekoak, baina, Hernanin lokala badaukate eta irailetik aurrera martxan jartzea nahi dute Estondo eta Zigandak.

■ Espeleología egiteko interesa izan ezkerro lasai jo Felix Ugarte elkartera edo Hernaniko bi kideengana. Telefonoa 943 63 81 76 (Ostegunetan 20:00-22:00).

ESPELEOLOGIA afizio edo hobbie-tzat daukate Estondo eta Zigandak, baina, beren denbora libreko ordu asko pasatzen dute horretan, Kronikari esandakoaren arabera. Felix Ugarte espeleología taldeko kideak dira biak eta gaur egun Irunen biltzen badira ere, Hernanin lokala lortu berria dute eta bilerak Hernanin ere egingo dituzte, irailetik aurrera. Felix Ugarte taldean hamabost bat lagun dabilta, tartean bi hernaniarrak, eta aldi berean Euskal Espeleologo Elkargoan sartua dago taldea, Euskal Herriko beste 20ren bat talderekin batean.

### Proiektu jakinetan

Espeleología afizio garestia da bi lagunek esandakoaren arabera. Materiala erosia eta gastuei aurre egiteko proiektu konkretuetan lan egiten du Felix Ugarte taldeak, eta horregatik ematen dizkieten diru laguntzetatik bizi da taldea. Gaur egun esaterako, Irun eta Oiartzun aldean Arditurriko meategietan dabilta katalogatzan, hau da mapa topográfikoak egin, argazkiak ateria, non dagoen koordenadak jarri eta abar egiten. Horrez gain, Aralarra sima batean (Goitik beherako koba) bilatutako ura zein iturritara ateratzen den ikusteko kolorazio bat egin behar dute. Kolorazioa egiteko kobara sartu eta kolorante moduko bat botatzen diote urari. Ingruko iturrietan kolorante hori nabarituko du-



Jon Ziganda eta Jon Estondo eguzkiaren argitan. Kobatako iluntasuna asko gustatzen zaien.

en zerbaite jartzen dute eta horrela zein iturritara atera den jakin dezakete.

### Etxolaberriko meategietan

Felix Ugarte taldea Hernanin ere badabil proiektu batean. Etxolaberriko meategietan txu-

kuntze lanak egiten ari dira Eusko Jaurlaritza eta Udalak antolatutako Auzolantergietan. Lehen proiektua berek aurkeztu zioten Udalari eta plano topográfiko batzuk ere eginak badituzte. Bi espeleologoen hitztan “leku zoragarria da Etxo-

laberriko eta oso herniar gutxik ezagutzen dute. Proiektu honekin jendeak ezagutzeko bidea jarri nahi dugu”. Auzolantergiak bi txandatan egingo dituzte. Lehenengo txanda bukatu da eta bigarrena datorren astean hasiko da.

### 588 metro behera

Kobazulotan izan duten esperimentziarik zirraragarrienagatik galdetuta, Aralarren 580 metro zuloan behera jaitsi zirenko dute gogoan. Euskal Herrian inor jaitsi den beherena. Zigandak 21 ordu egin omen ditu handik atera gabe hondoa ezin jota eta Estondok 44 ordu ere bai. Zirraragarriena horrelako koba berrieta sartzea omen da, inoiz inor ibili ez dela jakinda eta han zer egongo den ikustea. Lur azpian paisaia izugarri ederrak bilatu litekeela diote, edo auskalo zer animaliaren hezur batzuk edo xomorro arraroren bat. Horrelako kobak bilatzeko mendiak arakatzen ere aritzen dira, Aralarren adibidez, eta bilatzean koba txikia bada topografiatu egingo dute eta haundia bada arakatzen hasi.

### Arian ikasi

Espeleología gustatu eta arian arian ikasia dute Estondo eta Zigandak kobatan nola ibili. Beharrezkoak omen dira 2 buzo berezi (bata hotzaren kontrako eta bestea arrastada eta lokutzerako), sokan jeisteko arnesak, blokeadoreak, kaskoa, eta linterna, argiztapen karbonikoa duena. Sokak eta gainerakoak taldean erosten dituzte denek batera erabiltzeko.

Inor interesaturik balego, irailetik aurrera kursiloren bat antolatu eta lokal berriari “martxa” pixka bat eman nahi diote bi hernanirek eta jendeari laguntzeko prest daude. □

**AMEGAR**

Etxe tresnak Altzariak

Elektrogailuak TB- Bideoak- HI-FI-Opariak

Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 30

**AMARI**

**R**  
**R**  
**A**  
**N**  
**D**  
**E**  
**G**

**ARRATIA  
ITSASKIRIA  
FRESKO ETA  
IZOTZUA**

Kardaberaz 34  
Tel.: 943 55 07 52  
943 55 22 11  
20120 Hernani



**G A U R  
ASTIGARRAGAN  
DISKO FESTA**  
Joseina Etxeberriarekin

J. Barandiaran plazan  
22:30etan

Santio jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!  
Etorri festara eta ondo pasa.

**Astigarragako  
Udala**



■ ERREMONTA - BURUZ BURUKO TXAPELKETA GALARRETAN



Juan Antonio Erzilla 'Erremonte 2000'ko burua eta Odon Elorza Casino Kursaaleko Marketing zuzendaria akordioa sinatu aurretik, atzo, Casino Kursaalean. Erdian Xabi Franchez prentsa arduraduna.

## Casino Kursaalek patrozinatuko du datozen bost urteetan buruz buruko txapelketa

■ Atzo sinatu zuten akordioa Galarretak eta Casino Kursaalek Donostian ■ Txapelketa lehenago ere Casinoak patrozinatu izan zuen urte askotan.

CASINO Kursaalek patrozinatuko du erremonteko buruz buruko txapelketa datozen bost urteetan. Akordioa Galarreta eta Casino Kursaaleen artean sinatu zuten, atzo, Casino Kursaalean. Buruz buruko txapelketa orain dela 18 urte hasi zen, eta hain justu Casinoa izan zen patrozinatzalea hasierako urte haietan. Geroago ere Casinoak urteetan patrozinatu du txapelketa baina, azken urteetan Bingo Londres izan da txapelketari izena eman diona.

### Arduradunak gustora

Juan Antonio Erzilla eta Odon Elorza sinatu zuten akordioa

eta biak hala biak oso gustora azaldu ziren ekitaldiaren ondoren. Odon Elorza Casino Kursaaleko Marketing zuzendariak esan zuen oso gustora zeudela berriz txapelketa patrozi-

**Casino Kursaal**  
Txapelketa abuztuaren  
2tik irailaren 6ra  
jokatuko da

natzearekin, eta Casinoak apustu bat egin nahi izan duela Gipuzkoaren alde, Galarretaren alde, espektakuloaren alde. Elorza esan zuen baita ere, espero duela patrozinioa urte

askotarako izatea, eta erremontea iristea lehen zena izatera.

Juan Antonio Erzilla ere oso gustora azaldu zen akordioarekin. Erzillak gogoratu zuen, Casinoko Pepe Odriozola izan zela 18 urte aurrerago buruz buruko txapelketa egitea proposatu zuena eta hari eskerrik iritsi dela buruz burukoa, erremonteko espektakulorik haundieta izatera.

**Buruz buruko txapelketa**  
Casino Kursaal txapelketa abuztuaren 2tik irailaren 6ra jokatuko da. Datorren astean jakingo da zein jokalarik hartuko duten parte. □

## Fernando Ros 'Naparra'ri omenaldia egindo zaio igandean Abarzuzan

■ Plaka bat jarriko diote baita ere, bere omenez Karmelo Labakako plazan dagoen monolitoan ■ 1986an hil zen Ros eta ordu ezkero urtero egin zaio omenaldia.

FERNANDO Ros Naparra 1986ko uztailaren 28an hil zen Hernanin, trenbideko tentsio altuko kable batek harrapatuta. Ros protestan ari zen, errefuxiatuak estraditatzentz ari zirela salatzeko. Ordu ezkero urtero egiten diote omenaldia bere inguruko lagun eta familiaok eta aurten ere hala egiteko asmoa daukate. Omenaldia Abarzuzan izango da igandean. Lehendabizi Abarzuzako kanposantuan egindo da haren omenezko ekitaldia, eta gero herri bazkarian bilduko dira Hernaniko koadrila eta Abarzuzakoa. Aurten igandearekin egingo diote omenaldia, eta joan nahi duenak aukera izango du, bere koadrilarekin harremanetan jarri ezkero. Horrez gain, plaka bat jarri diote haren omenez Karmelo Labakako plazan dagoen oroigarrian. Fernando Ros Abarzuzakoa zen baina, 25 urte zituela etorri zen Hernanira eta hemen bizitu zen urteetan. □



Fernando Ros omenezko oroigarrian.

## HITZ BITAN

### ✓ EXERAT ELKARTEA

**Kontzentrazioa gaur Gudarien Plazan.** Etxerat elkarreka kontzentrazioa deitu du gaurko Guztion Arteen Euskal Presoak Euskal Herrira lemarekin. Kontzentrazioa 20:00etan izango da Gudarien Plazan. Etxeratet dei egin die hernaniar guztiek kontzentraziora azaltzeko.

### ✓ IGERIKETA

**Gaur da Getaria Zarautz igeriketa proba.** Itsasoan igeri egitea gustatzen zaionak aukera ezin hobea du gaur. Getariatik Zarautza da proba, guztira 2.500 metro. Hernanitik ekipoko igerilariak joatekoak dira eta bere kabuz dijoanik ere bada. Umeek proba berezia izango dute Getarian bertan, 600 bat metrokoa.

### ✓ KONTZERTUAK

**Mac Jeara's Band hernaniar taldea Jazzaldian.** Mac Jeara's Band taldeak kontzertua emango du gaur Donostiako Udaletxeko areto nagusian, eguerdiko 12:00etan, Donostiako Jazzaldiaaren barruan. Zortzi musikarik osatzen dute Mac Jeara's Band taldea eta hiru hernaniarrak dira: Ander Barrenetxea bateria, Ainara Ortega abeslaria eta Roberto Pacheco saxofojolea. Datorren igandean ere Jazzaldian kontzertua dute, 19:00etan Kursaal ondoko Frigo eszenatokian eta asteleheneari Zarauzko Nazioarteko 4garren mintegian joko dute, 19:00etan hondartzan.

**Maietx kantautorea gaur Andragoton.** Maietx Kantautoreak kontzertua emango du gaur Hernanin, Andragoto Ateneoa. Kontzertua 19:30etan hasiko da.

### ✓ FESTA ASTIGARRAGA ETA ARANON

**Gaur Santio eguna, goizetik gauerako festa.** Astigarraga eta Aranon ari dira ospatzen Santio festak eta gaur egun haundia dute bietan ere. Aranon Goizuetaren kontrako pelota partiduak dituzte, urtero bi herrien arteko pikea sortzen duen desafioa. Arratsaldean herri kirolak, bertsolariak eta trikitixa. Astigarragan egitarau zabala dute: afizionatu mailako kroñescalada ezagun eta gogorra, Santio mendin gora. Horrez gain, Astigar dantza taldearen erakustaldia, Mariatxiak kalean barrena eta Hortzmuga antzerki taldearen Klaketa ikuskizuna. Gauerdia baino lehen Larraintantza herrikoia dago Foru plazan eta gauerdian diskofesta emango du Joseina Etxeberria Euskadi Gazteko esatariak.

## EGITARAUA

### GAUR ARANON

10:00 Goiz soinua trikitixarekin.

11:00 Meza Nagusia

12:30 Goizueta eta Aranoren arteko pelota partiduak.

18:00 Herri kirolak. Saralegi, Arrospide, eta Mindegia, eta Eneko eta Ruben aizkolari gazteak. Ondorenean iparraldeko jokoak.

19:30 Bertsolariak: Peñagarikano, E. Eizagirre, Silveira eta Lujanbio. Gai jartzaile Xabier Legarreta.

22:30 Epelde eta Larrañga trikitilaria herriko plazan.

### GAUR ASTIGARRAGAN

07:30 Aulki-jokoa eta txokolate jana.

09:30 Txistularien diana.

11:00 Meza Nagusia, Santiago Ermitan.

12:00 Dixie Kalejira

12:00 XII. Kronoeskalada.

13:30 Kronoeskaladaren sari-banaketa.

18:00 Astigar taldearen dantza-era-kustaldia, pilotalekuaren.

19:00 Garibaldi Mariatxiaren kalejira.

19:30 Hortzmuga Teatro taldearen Klaketa ikuskizuna, Apeztegi Plazan.

23:30 Larraintantza herrikoia Foru Plazan.

00:00 Diskofesta.

### IRAGARKI MERKEAK

Bi neska behar ditugu Hernaniko taberna batean sukalde eta zerbitzari lanak egiteko. 25 urtetik gorakoak eta esperientziarekin. Deitu: 943 55 26 94 (Nekane 10:00-15:00 eta 17:30-23:00)

Hernaniko Pelukeria batean estetika lanak egiteko pertsona bat behar degu. Deitu: 943 55 63 68

Hernaniko taberna batek pertsona bat behar du lanerako. Kondizio onak. Interesatuek deitu: 660 982 145 edo 678 058 003.

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

■ Taxiak: 943 550093

■ Udaltzaingoa: 943 333288

■ DYB: 943 464622

■ Autobusak: 943 556662

■ Anbulatorioa: 943 006666

■ Jokalari anonimoak: 943 331103

### ✚ FARMAZIAK

■ Egunez: Etxebeste

Elkano 2

☎ 943 552087

■ Gauetza: Oa

Usurbil. Poligono 1, 1

☎ 943 376076